

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko urtarrilaren 11. VIII. urtea. 2.155. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Aurrerapauso «garrantzitsua» ikusi dute gehienek ETAre azken agirian

ETAk atzo iragarritako su-etenaren harira Tolosaldeko eta Leitzaldeko alderdi politikoen eta sindikatuen iritzia bildu ditugu **03**

Trikiti munduak Juan Orbegozo panderojolea gogoratuko du

'Alegiko Juan' bezala ezagutzen zen musikaria hil da 82 urte zituela; Azpeitiko zen sortzez baina ezkondu ondoren joan zen Alegiara **02**

Udalaren kudeaketa aztertze inkestak banatu dituzte

Igandean amaitzen da hauek entregatzeko epea; galdetegiak kultur etxeko sarrerako eta udaletxeko atariko postontzietan utzi behar dira **04**

Kiroldegian egutegi eta tasa berriak dituzte hasiberri den urterako

16 urtetik beherakoek 2,50 euro ordaindu beharko dituzte Belabietan sartzeko eta gainontzekoek, aldiz, 5,25 euro **04**



→ **Eskualdeko pilotariak.** Abel Barriola leitzarrak eta Xalax 22-18 irabazi zieten Gonzalez-Laskuraini lehen mailako Binakako Pilota Txapelketan. Bigarren mailan Leitzako Jon Jaunarenak galdu egin zuen. Ostiral arratsaldean lehen mailako eta bigarren mailako partidak Tolosako Beotibarren izan ziren. **07**

Maria Luisa Gorrotxategiren koadroak Jubilatu tabernan

Margolari zegamarraren margolanak urtarrila bukaera arte ikusi ahal izango dira Alegiako tabernan **05**



Jubilatu tabernan ikusi daitezkeen lanetako batzuk. I.GARCIA



Berezi

44-64 neurriak

MERKEALDIA!!!

NEURRI BEREZIAK
Gazte eta emakumeentzako moda

Errementari kalea, 3 • Tolosa • Tel.: 943 674 965

→ **Laburrak**

Saberri lurrindegiko zozketako sariak banatuta

TOLOSA › Saberri lurrindegiak jakitera eman du Gabonetan zozketatu dituen bi maletan irabazleak zeintzuk diren. Alde batetik, Mari Ropero anoetarra eta bestetik, Eukene Landa errezilarra izan dira.

Gernikako akordioa sinatu duten eragileen ekitaldia

AMEZKETA › Sei eragilerekin sinatu zuten akordioa baina amezketarren helburua zerrenda hau luzatzea zen. Orain 17 talde ezberdinen atxikimenduak lortu dituzte. EHNE, LAB, ELA, ezker abertzalea, Amezketa Elkarlanean eta Kimu Berriak ez gain, orain atxikitu diren taldeak hauek dira: Bertso Eskola, Emakume Taldea, Irakurketa Taldea, Pilota Eskola, Zazpi Iturri elkarte, Ugarteko elkarte, Buruntzuntzin mendi elkarte, Papelerako Aralar elkarte, Gaztea Taldea, Ospela eta Guraso Elkarte. Hauek guztiak hilaren 16an ekitaldi bat ospatuko dute 12:30ean plaza. Sinaketa ekitaldiaz gain txalaparta eta bertsolariak izango dira. Bertara, herri guztia gonbidatzen dute.



2011 agenda

Dagoeneko salgai!



12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherriko plaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepede mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

Herri mailako eta bestelako diru laguntzak iazko berberak izango dira

Amezketako Udalak 2010eko urte amaieran egindako ohiko bilkuran onartu zituen aurtengo diru laguntzak

Erredakzioa Amezketa

2010. urteko azken ohiko bilkuran besteak beste, 2011. urteko ekitaldiari dagokion kultur eragileen diru laguntza eskaerak erabaki zituzten. Bai herri mailan ematen dituztenak eta baita kanpora bideratzen dituztenak ere.

Amezketako Udaletik, diru laguntzei dagokienez iazkoak mantentzearen aldeko apustua egin dutela adierazi du Jesus Iñurritak alkateak. Herri mailako taldeei, jaiak antolatzeko edota kanpoko elkarte eta eragileei ematen zaizkien laguntzak 2010. urtekoaren berberak izango dira.

Nepalera laguntza

Laugarren urtez jarraian, Amezketa Udalak Hirugarren Mundura bideratzen den laguntza Nepalera bideratu du.

Haserako proiektuak aldatek izan ditu baina helburu berdinekin jarraitzen dute. Krisiaren ondorioz laguntza batzuek huts



iazko San Bartolome festetako momentu bat. HITZA

egin dute eta adibidez argi indarra lortzeko, generadore hidraulikoaren ordez, eguzki plakak jarriko dituztela argitu du Iñurritak alkateak. Etxe bakoitzak bi bonbilla izango ditu eta eskolan bonbillak nahiz 220v-ko argi indarra izango dute. Eta amezketarrek duten beste asmoa, hemengo eskolako haurrak eta hango eskolako haurrekin harremanetan jar-

tzea, «datziak, marrazkiak edota argazkiak bidaliz» dio. «Ilusioz hartu dutela ideia Nepalen adierazi digute» gaineratu du.

Dinamizatzailea

Udalaren eta Guraso Elkartearen elkarlanean, 12 urtetik gorako gazteei zuzendutako dinamizatzailea martxan jartzeko asmoa dute Amezketan.

↓ **Diru laguntzak**

HERRIKOAK

- Guraso Elkarte. 1.000 euro.
- Pilota eskola. 4.133 euro.
- Bertso eskola. 1.000 euro.
- Musika eskola. 500 euro.

JAIK

- Amezketa jai Batzordea. 36.000 euro.
- Ugarteko Jaiak. 5.250 euro.

BESTE LAGUNTZAK

- Galtzaundi. 450 euro.
- Hitza. 1.000 euro.
- KMK, 11. 60 euro.
- Nafarroa Oinez. 225 euro.
- Herri Urrats. 225 euro.
- Korrika. 500 euro.
- Ehunmillak. 500 euro.
- Nepalera. 6.400 euro. (Dolpo-Katmandu proiekturako laguntza).

Urte honetan jarri nahi dute abian eta dagoeneko ideia ezberdinak aztertzen ari dira. Beharra ikusi dute eta dinamizatzailearen lana, batez ere, aktibitate eta kirolari lotutako ekintzak izango lirateke.

Euskal Herriko trikiti munduan oso ezaguna den Juan Orbegozo panderojolea hil da

Sortzez urrestildarra zen baina Alegian bizi zen 'Alegiko Juan' ezizenez ezagutzen zen panderojolea

Erredakzioa Alegia

Juan Orbegozo Alkorta, (1928, Urrestilla, Azpeitia) Alegiko Juan ezizenez ezagutu izan den panderojolea hil da 82 urte zituela.

1928. urtean Azpeitiko Urrestilla auzoko Endaizpe baserrian jaio zen. Bertan eman zituen bere lehen urteak eta ezkondu ondoren Alegiara joan zen bizitzera.

Trikiti munduan bere alea jarri du Alegiko Juan panderojoleak. Izen handiko trikitalarien lagun fidela izan da. Lehendabizi, Auntxa osaba-ilobekin hasi zen eta ondoren, Laja eta Eleuterio Tapiarekin ere jardun zuen erromeriaz erromeria panderoa astintzen. Herriz herri, jaietako erro-

merietan ohiko aurpegia zen Orbegozoren.

Bere anaiek panderoa jotzen zutela eta bera ere saltsan egoteko zortzi urterekin hasi zen panderoa jotzen. Bere lehen emanaldia Auntxe Zarra lagun zuela Urrestillako jaietan eskaini zuen hamabi urterekin. Harrez gero,

Euskal Herriko Trikiti munduan bere arrastoa utzi du Alegiko Juanek.

Juan Orbegozo panderojoleari 2004. urteko Alegiako herriko jaietan omenaldia egin zioten.

Azken agurra atzo eman zioten Alegiako San Joan Bataiatzailearen parrokian.



1975. urtean, Orbegozo herriko jaietan kalea alaitzen. HITZA

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Motorra.** Suzuki RMZ 450a salgai. 2006. urtekoa eta egotera oso onean. Interesatuak deitu 635 75 09 15 telefonora.

LANA

■ **Sukaldaria.** Sukaldaritzan esperientzia duen emakumea eskaintzen da jatetxe batean lan

egiteko. Interesatuak deitu 688 682 136 edo 688 681 257 telefono zenbakietara.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Bolder Collie arrazako txakur arra galdu zen Errege gaean Tolosan. Ikusi edo aurkitu duenak deitu 634 45 91 10 telefono zenbakira.

«Gizartearen zati batean ilusioa sortuko du, baina beste batzuei ez»

ETAren su-eten egiaztagarri, iraunkor eta orokorra eta gero alderdi eta sindikatuen iritziak bildu ditugu

Erredakzioa Politika

Bruselako eta Gernikako adierazpenen sinatzaileei erantzunez, su-eten egiaztagarri, iraunkor eta orokorra aldarrikatu zuen atzo ETAK. «Nazioarteko komunitate-

ak egiaztatu ahalko duen su-eten iraunkor eta orokorra adieraztea erabaki du ETAK. Horixe da behin betiko konponbiderako prozesuarekiko eta konfrontazio armatuaren amaierarekiko ETAK duen konpromiso irmoa», dio hitzez hitz erakunde armatuak agirian. Agiri laburra plaza-ratu du ETAK.

Lehenik eta behin, azpimarratzen du nazioarteko zein Euskal Herriko eragile esanguratsuek «mendeetako gatazkari konponbide justu eta demokratikoa»

emateko beharra adierazi dutela, eta eurek bat egiten dutela helburu horrekin. Ildo horretatik, konponbidea «elkarriketa eta negoziazioa lanabes eta euskal herritarren borondatea iparrorratz» duen prozesutik etorriko dela dio, eta prozesu hori bultzatzeko eta arlo horretan duen konpromisoa adierazteko su-eten egiaztagarri, iraunkor eta orokorra ematea erabaki duela. Prozesua azken bururaino eramateko ahaleginean «etsi gabe» jardungo duela azpimarratu du bukatzeko.



Amezketako talde politikoek eta sindikatuen ordezkariak Gernikako Akordioa sinatu zuten orain gutxi. I. GARCIA

↓ Erreakzioak

Periko Peñagarikano

Ezker abertzalea

«Albiste oso interesgarria da. Askok espero zuten, eta azkenean bete da. Bruselako adierazpena betetzen du baita, Gernikako akordioa ere, eta gainera, gatazkaren konponbidea eragileen esku uzten du. Su-eten egiaztagarria eta iraunkorra hitz egiten du ETAK, eta hori da nahi zena. Azken batean, Ezker abertzalea ematen ari den prozesuan beste urrats bat da, eta garrantzitsua gainera. Hala ere, orain, beste batzuek ere urratsak emateko garaia da».

Onintza Lasa

EA

«Beste urrats bat da ziklo politiko berri onen alde eta ikuspegi honetan beharrezkoa dena. Gizartearen aldetik eskaera bat zegoen eta ETAK urrats bat eman du agiri honekin. Orain Espainiako Gobernuari eskatu behar zaio euskal gizarteak nahi duenari kaso egitea. Denon urratsa da beharrezkoa».

Txelo Romeo

EAJ

«Su-eten den guztia ondo dago, aurrerapausoa da. Hobe-

izango litzateke su-eten behin betikoa izango balitz, hala ere. Denbora generaman albistearen zain eta iritsi da».

Iñaki Irazabalbeitia

Aralar

«Aralarren ustez, ETAren agiria garrantzia handikoa da, eta Gernikako Akordioaren beteazpenareko hasiera behar du. Hain zuzen, akordio hori da Euskal Herrian bakea eta normalizazio politikoa lortzeko benetako bide-orria. Aralarrek deritzo ETA erakundeak Gernikako Akordioa bere osotasunean onartu eta bete behar duela, alde bakarrekotasuna barne.

Agirian Gernikako Akordioa aipatzen den arren, ez du esaten bere osotasunean onartzen eta betetzeko konpromisoa hartzen duenik».

Itziar Jauregi

Hamaika Bat

«Nahiko kezkatu hartu dugu komunikatua. Ez du desagertzen esaten, su-eten baizik. Gehiago espero genuen, behin betiko izango zela. Su-eten aurretik ere komunikatuetan azaldu dute, baina gero badakigu nola bukatu den hori».

Antton Karrera

EB-Berdeak

«ETAK bidali duen agiria motz gelditzen da. Jendeak gehiago espero zuen. Egin behar duena da behin betiko indarkeria eta borroka armatua uzteko prest azaldu. Bestela orain arte egin dituen agiriaren antzeko da. Denborak aldatu egin dira eta ez da nahikoa bidali duen agiria. Gizartearen eta herriaren zati batean ilusioa sortuko du, baina beste batzuei ez die espektatiba handirik sortuko. Jendeak gehiago eskatzen du eta behar du».

Oskar Renedo

PSEE-EE

«Pauso bat da, baina ez guk espero genuena. Agirian su-eten egiaztagarri batez hitz egiten dute baina ez dute esaten armak betirako utziko dituztenik, ez eta, ETA desegingo denik ere. Horregatik, baikorki hartu dugu, baina, ez da nahikoa».

Silvestre Zubitur

PP

«Lehengoeekin, Lizarra Garazi-koarekin eta aurrekoekin bezala sentitzen naiz agiri honen aurre-

an. Ez dut sinesten. Aspaldi bukatu beharra zegoen indarkeri honekin eta ez dut uste egun batetik bestera amaituko dutenik; ez zaielako komeni. Zukua ateratzen jarraitu nahiko dute. Inori ez die mesederik egin, ezta euren buruari ere, sufrimendua bakarrik ekarri dute; bai batzuei eta bai besteiei. Demokrazia etorri zenetik iritzi guztiek dute lekua herri honetan: edozein alderditan, udaletxeetan...».

Jose Migel Goikoetxea

UPN

«Lanean izan naiz gaur egun guztian zehar eta ez det agiria irakurtzeko denbora gehiegi hartu. Baina ez dut ezer berria espero. Aurreko agiriaren jarraipena izango da, are gehiago, hauteskudeen gertutasuna ikusita. Hala ere, beraien partetik kontraesana dela esango nuke. Izan ere, orain gutxi materiala atzeman diete Frantziako zulo batean... hau da, aktibo daude. Zein da azalpena? Gure aldetik, UPNren aldetik, eustea».

Mari Mujika

LAB

«LABek ETAren erabakia txalo-

tzen du, gatazka, enfrontamendu eta errepresio egoera gainditzeko duen konpromiso argiaren isla da emaniko urratsa. ETAK behin-betiko konponbidea lortzeko eta konfrontazio armatuari bukaera emateko konpromiso argia erakutsi du. Hurrengo urratsa Estatuari dagokio. Euskal Herrian hamarkadak daramatza Estatuak indarkeria erabiltzen, atxiloteta arbitrarioak, torturak eta. eguneroko ogia dira oraindik orain. Estatuaren indarkeriak bere horretan dirauen honetan, PSOE eta bere bidelagun zintzo den PNVk ere zehaztu behar dute zein izango den gaurtik aurrera hartuko duten jarrera. LABek bere aldetik lan-gileria guztiari dei egiten dio konponbide demokratikoaren bidean urratsak eman eta lanean jarraitzeko».

Alfredo Garcia

CCOO-Euskadi

«Gure ustez ETAren agiriak alderdi oso positiboak biltzen ditu eta baita zenbait zalantza ere. Oso berri ona izango da ETAK azalpen eta estrategia politikoa alderdi politikoen esku uzten baditu».

EZAGUTU WEBGUNE BERRIAK

www.TOLOSALDEA.hitza.info

www.IBARRALDEA.hitza.info

www.ALEGIALDEA.hitza.info

www.LEITZALDEA.hitza.info

www.TOLOSA.hitza.info

www.ANOETALDEA.hitza.info

www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Urte berriarekin egutegi eta taseen aldaketak datoz Belabietara

Kirolegiariaren kudeatzaileek hasi berri den urterako prezioak zehaztu dituzte; baita ordutegiak ere

Erredakzioa Ibarra

Urte berria, ordura arte bete ez diren seme-onaik surrera emateko abantugia izan da askorentzat. Eta hainbat lagunen artean, horietako bat, kirola egitearekin izan da. Belabietako kiroldegiko kudeatzaile diren BPXport Kirol Zerbitzuak enpresakoek, tasa eta egutegi berriak prestatu dituzte 2017rako.

Kiroldegian eskaintzen diren jardura edo ikastarotako askok lau hilabeteko iraupena izaten dute. Hori dela eta, lehenaldizko hiruhilekoa abenduan, Gabonak

hasieraz ziren osatu ziren, eta orain ekin dute burrunari. Kiroldegia hemendik aurrera astelehenetik ostirakera, 08:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 22:00etara egongo da zabalik. Larunbatetan berriz, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etik 21:00etara. Auzokan, igande eta lehenetan, 10:00etatik 13:00etara.

Datoren hilabeteetan ondorengo jarduerak egin ahal izango dira Belabietako kiroldegian: jula, yoga, cycling, tai chi, gimnastika erritmikoa, pilota, hirugarren adibideak, gimnastika, maillafitness eta boss-grap. Azken hauek berriak dira, urrian jarri zituzten martxoan jarritak. Egoera fisiko onokora hobetzen laguntzen duten ikastarotak dira hauek. Ibararako kiroldegia, 800 bazkide inguru ditu eta hauek hurreman personalizatuta eskaintza ahalbidetzen du.



Belabietako instalazioak astez eta asteburutan egongo dira erabiltzeko. **BERBAKALDIA**

2017ko egutegi eta tasa berriak

TASAK

• **Sarrera**, 16 urte baino gutxiago dituztenentzat 2,50 euro baino gutxiago gorakoentzat berriz, 5,25 euro.

• **Urteko abonua**, 16 urte baino gutxiago dituztenentzat 24,50 euro, 16 urte gutxiago dituztenentzat 41. Kirol ikastarotako ikasleek preste berria izango dute 51,50 eurokoa. Familia abonamendua (16 urte

baino gutxiago edo diru sarrikerarik gabeko 16 urteko gorako seme-alabak dituzten senar-emazte edo bikoteak, gorpuz zaintzarako jela barne) berriz 113,75 euro.

• **Jokalekua alokatzea**, Argi artifizialak gabe, ordua eta zatiak 31,50 euro. Argi artifizialekin, ordua eta zatiak 40,50 euro. Kirol ekintzak 24 ordutarako 34 euro.

• **Pilotalekua alokatzea**, Argi artifizialak gabe, ordua eta zati-

akia, 9 euro. Argi ordu bat 5,25 euro. Kirol ekintzarako 24 ordutarako 34 euro.

• **Solarium bertikala**, Harpidedunak, saio bat 5 euro ordaindu beharko dute eta hamarretarako abonua 37,75. Harpidedun ez direnek berriz, saio bat 6,25 euro, eta hamar, 56,25.

• **Deskontuak**, Familia ugariel %50eko beharpena egongo zaie, bai abonentan, bai eta edozein eratako ikastarotetan ere.

Udalaren kudeaketa baloratzeko aukera dute orain alegiarrek

Etkez etxe banatu dute hainbat gai jorrazten dituen inkesta; hau entzetzeko epea izango da amaitzen da

Erredakzioa Alegia

Alegiako ezker abertzaleak «berriaren alde emateko minutu baten» eskatzen du. Izan ere, «berria hori dute orain eta baina denaren gaineko iritzia agertzeko galdetza bat» prestatu dute herritarrek bete dezaten.

Galdetegiak etkez etxe banatu dituzte. Bertan, hainbat gaien inguruko galderei erantzuten dira. Honek, alegiarrek, lau urte hanetan, eta bukatzen den legealdian Udalak egindako lanaren balorazio bat osatu ahal izango dute.

Berriak galdetegiak jasotzeko, kultur etxeko sarrean eta Udaltzaitearen atarian jarri dituzte postozkatu. Idazkiak entregatze epea igande honetan, hilaren 16an amaitzen da. Bestalde, galdetegi gehiago nahiz dituztenek, kultur etxean, eta herriko dendetan nahiz tabernetan eskuratu ditzakete.

Inkesta honetatik abiatuta datoren legezdirako lehen tasuak eta lan eremua definitzen hasiko dira. Galdetegiak anonimoak izango dira, hau da, erantzuteko ez da izenik jarri behar.

Besteak beste, ondorengo gaiak aipatzen dira inkestan: herriaren parte-hartzea; eskaintzen zerbitzuak; lurgitzea eta honen baitan onaruntako planak; UEMA; kultur eskaintza; haur eskola, AHT... Hainekiko adostasun eta desadostasun maila adierazten ahal izango dute, eta komentarioak gehitu, inkesta betezea erabakitzen dutenak.

Mendibilek bizikletaz egingo den ibilaldi bat antolatu du Leitzan

Mendibil menditalkale irteera bat antolatu du hilaren 15erako. Ibilbidea bizikletaz egingo dute

Erredakzioa Leiza

Leitzako Mendibil menditalkale larunbat honetarako, hau da, hilaren 15erako menditalkale bat antolatu du. Larunbatetan egingo den irteera hau bizikletaz egingo

da. Piztasalagor gelatik abiatu eta Leitzalarrea egingo dute txangoa. Horretarako, 9:30ean abiatuko dira Leitzako gelatik. Mendibil talkalek «lekuak eta errepuestoko kamera» eraman beharko direla dute.

Irteeraren zailtasun maila eraso izango da, 22 kilometroko ibilbidea egingo dute bizikletaz, eta hori egiteko bi ordu eta laurden inguru beharko dituztela uste dute. Beraz, aukera polita bizikletan naturaz eta Leitzako inguruz gozatzeko.



Aurrean ikusten dena margotu

Maria Luisa Gorrotxategi zegamarrak bere margolanen erakusketari jarri du Jubilatuen tabernan urtarilaren bukaera arte

Imanog Garcia Alegia

Alegiako Jubilatuen tabernan Maria Luisa Gorrotxategi zegamarraren margolanak ikusgai daude hil honetan. Hamabost margolan jarri ditu, ia gehienak

bodegiak. Paisaia bat ere bada go, Zegamatik Aizkorri ikusten dena. Koadroak salgai daude, baina prezioak jarri gabe. «Interes duenak dituko dit, bertan nire txartel batzuk utzi baititut», azaldu du margolariak.

Sanmartinetan bere herria erakusketari egin zuen eta han jarritako hainbat koadro duela Jubilatuen tabernan. «Batez ere azken urteetan egindako lanak dira», dio Gorrotxategi. Tabernetan margolanak erakusteko oso ondo indultzen zaio, «jende asho mugitzen den lekua izaten da. Galdetzen ere bai, baina horiek ordu jakin batzuetan egoten dira irekitas». Gehiena egiten duena bode-

goiak edo etseko bazterrak dira. Aurrean ikusten duena salatzen du koadroan. «Argizki batetik edozein paisaia egin daitzake, baina naturatik izateko bizi zaren ingurua edo erresona da ikusaraz mottu bozera izan behar du». Bodegoi bat egiteko bertatik bertara duena margotzen du. «Aurrean dagoena margotzen dute ikusi eta egin», azaltzen du. «Bizi guztia» darama margotzen. 19 urte zituela, 1967tik ari da

eta 1978an Gipuzkoako margolarien saria eman zioten. Orduan zenbat erakusketari egin zituen gaileri batzuetan. Beti gustatu izan zaila margotzea eta horretan jarraitzen du. Margotu ere ez, erakutsi ere egiten du bere herria. «Eskaintzen dituztenak, gero gehiago baloratzen dute. Ikusten dute zenbat kostatzen den nahiz duzun gauza hori lortzea», azaltzen du. Margotza «beste edozein gauza bezala» dela dio. «Nik uste dut inspirazioa hainko, gehiago izaten dela zenbat eta gehiago egin orduan eta erretzago egiten duzula», gaineratzen du Gorrotxategi.

BERRIA taldeak zure laguntza behar du

HITZAK inoiz baino irakurte gehiago ditu, baina inoiz baino baliabide ekonomiko gutxiago. Interneten eta paperrean, gure komunikazio proiektuak berria eta inoiz irakurte gutxiago. **Apostu hau aurrera ateratzeko da, zuekin batera, gure erronka.**

Bihar ere euskaraz bizitzeko tresnak izan ditzagun!

Lagundu gaitzazu ekonomikoki

Ekarpen egiteko bideak 50 € • 100 € • edo nahi duzun kopururekin

- **Transfrentzia Euskadiko Kutxan: 3035 0060 48 0600113162 (izen-abizenak zehaztu)**
- **Kreditu txartelaren bidez: zuzaraberria.info webgunean**

berria
taldea

Kirolak >

↓ Emaitzak

PILOTA

BINAKAKO TXAPELKETA

Lehen maila	
Xala-Barriola	22
Gonzalez-Laskurain	18

Olaizola II-Begino	22
Bengoetxea VI-Patxi Ruiz	16

Berasaluzte VIII-Apraz	22
Olaizola I-Beloki	15

Bigarren maila	
Lemuno-Oteiza	22
Olaetxea-Albisu	21

Gorka-Merino	16
Olazabal-L. Galarza	22

Apezetxea-Zezilio	22
Jaunarena-Larrinaga	8

EUSKADIKO TXAPELKETA

Galarraga (A-Saiaz) 18

Zugarralde	5
Huarte	10
Zelaia (Aurrera Saiaz)	22
Artza Bermeo	22
Labaka (Aurrera Saiaz)	16
Bergara	22
Kina (Aurrera Saiaz)	14
Zubiri (Aurrera Saiaz)	5
Bergara	22
Mugika-Aburuza (A-S)	22
Oiarpe	5
Labaka-Elustondo (A-S)	22
Lagun Onak	15
Sukia-Otaegi (A-S)	22
Herriaren-Llodio	4
Danok Lagunak	10
Narbarte-Biain (A-S)	22
Markina	18
X. Urbietta- K. Galarraga	22
Bergara	14

Apezetxea-Telletxea (A-S)

22	
Ziotza 2	4
Iñaki-Ander (A-S)	18
Ziotza 1	11
Ioseba-Oinatz (A-S)	18
Txapagain 1	18
Iban-Aitor (Aurrera Saiaz)	8

SASKIBALOI

LEHEN MAILA

Hamabigarren jardunaldia

San Inazio UPNA	74
Take Bide Bide Ibiza	81

Saikapena

1. Fundacion Baskonia (9-3)	
-----------------------------	--

2. Lizuan.com (9-3)	
3. Santurtzi (7-5)	
6. Bide Bide Ibiza (5-7)	

FUTBOLA

ERREGIONAL OHOREZKO

MAILA

Hamazazpigarren jardunaldia

Tolosa	1
Roteta	0

Saikapena

1. Anaitasuna (38 puntu)	
2. Hernani (36 puntu)	
3. Real Union (34 puntu)	
11. Tolosa (22 puntu)	

ERREGIONAL PREFERENTEA

Hamabosgarren jardunaldia

Euskalduna	2
Tolosa 'B'	0
Mondragon B	3
Intxurre	3

Saikapena

1. Urola (31 puntu)	
2. Elgoibar (29 puntu)	
3. Mutriku (28 puntu)	
8. Tolosa 'B' (20 puntu)	
15. Intxurre (10 puntu)	

ARETO FUTBOLA

NAZIONAL A MAILA

Hamabosgarren jardunaldia

Zalatambar Area 99	1
Lauburu Ibarra	1

Saikapena

1. Zierbana (37 puntu):	
2. Atenea Ikusnet (27 puntu);	
3. Ibarra (25 puntu)	

NAZIONAL B MAILA

Hamalagarren jardunaldia

Laskorain Ikastola	9
San Jorge Santurtzi	3
Irish Pub Sheperd	6
Orioko tabernak	2
Ceramicas Nogales Zarautz	5
Transportes Lakunza	1

Saikapena

1. Concepto Createch (37 puntu);	
2. Laskorain ikastola (34 puntu);	
3. Bilbo FS (32 puntu);	
7. Transportes Lakunza (20 puntu)	
10. Irish Pub Shepherd (17 puntu)	



Tolosaldeak klubeko igerilariak asteburu honetan Tolosan aritu ziren. HITZA

Tolosaldeak lehen mailan jarraitzeko txartela lortu du Usabalgo igerilekuan

Asteburuan Euskal Herriko kopako proba jokatu da; mutiletan bosgarren gelditu dira eta nesketan laugarren

Erredakzioa Tolosa

Igeriketa klubaren arteko Euskal Herriko kopa jokatu da asteburuan Tolosan. Eskualdeko taldeak lehen mailan jarraituko du bertan lortutako emaitzen ondorioz.

Horretaz gain, Tolosaldea klubeko hainbat igerilari federazio desberdinetan aritu dira lanean, taldetik azaldu dutenez. Hauen artean aurkitzen dira: Marta Alonso, Pablo Urkudun, Iosu Karrera, Idoia Alonso, Irene Zumarraga, Elena Cuadrado eta Idoia Alonso. Euskal eta Gipuzkoako federazioarekin egon dira.

Euskal Herriko kopa

Asteburuan Tolosako igerilekuan zortzi klub garrantzitsu elkartu dira, «Euskal Herriko onenak».

Mutiletan, lehen postua igerilari gipuzkoarrez osatua dagoen Bardulia taldeak lortu zuen. Tolosaldea berriz, bosgarren gelditu zen.

Nesketan, Bidasoak izan zen onena eta eskualdekoak laugarren gelditu ziren.

Bi mailatan Tolosaldeak helburua bete egin zuen, taldeko ordezkari esanetan, izan ere, proba hasi aurretik lehen mailan jarraitzea zen denen nahia.

Norbanakoak

Talde bezala bikain aritu baldin baziren, banaka ere emaitza onak lortu zituzten Tolosaldeko igerilariak.

Jokin Otaegik 100 metro tximiletan 59:43 segundoko denbora

egin zuen. 50 metrotan berriz, 26:95ekoa. Bi denborak estatu mailako gutxiengoaren azpitik aurkitzen dira. Marta Alonsok ere gutxiengoaren azpitik ibiltzea lortu zuen, 100 eta 50 metroko tximeleta proban. Olaia Cuadrado eta Zuriñe Del Pozok ere gutxiengoak lortu zituzten.

Iosu Karrera, Pablo Urkudun, Iñaki Karrera, Eneka Muñagorri, Iñigo Prada, Maria Manso, Ekaitz Privado, Irati Ibarbia, David Rodriguez, Unai Cossio, Ion Ander Perez, Eñaut Vazquez, Javier Valdivieso, Alai Ormazabal, Maria Muñoa, Iban Gabirondo, Beñat Bidaola, Imanol Ezeiza, Ion Ander Aurkia, Jone Etxarri, Elena Cuadrado, Erika Amundarain, Irene Zumarraga, Garazi Jaka eta Idoia Alonsoren lana ere azzimarratu zuten taldeko arduradunek. Gurasoen laguntza ere eskertu nahi izan dute Tolosaldea Igeri Kirol Taldea kidekoek.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Laskorain ikastolak garaipen argia lortu du

Santurtziren aurkako partida erraza suertatu zen eta horitxoek 9-3ko emaitzarekin hiru puntu lortu dituzte

Gorka Amatriain Tolosa

Modu bikainean eman dio Laskorainek hasiera 2011 urte berriari gabonetako etenaldi luzearen ostean, Santurtzi taldea nagusitasunez mendean hartu baitzuen joan den larunbatean Usabalen. Gogor entrenatu dute laskoraindarrek azken asteetan eta hasiera batean erreza zirudien partidua aurrera ateratzen jakin izan zuten azkenean.

Geldialdiek beti uzten dute zaltzarako tartea, eta tarte hori are eta haundiagoa bilakatzen da oporaldiaren aurreko neurketa porrot mingarri batekin ebatzia izan bada. Kontuak kontu, horitxoek sasoi betearen direla erakutsi

dute eta Elorrioren izandako istrupu txikiari erantzun bikaina eman diote bere zalegoaren aurrean, gol festa oparo bat eskainiaz.

Arerioa sailkapeneko hamarren postuan kantaratu zen Tolosan eta kalitatezko xehetasun ugari utzi bazituen ere, kontrakoak diren bi aurpegi azaldu zituen ikastolakoaren aurrean. Lehen zati errespetagarri eta dotorea osatu zuten bizkaitarrek, Jonnikok egindako bi golekin erantzun aparta jaso zutelarik kanpotarren aldetik, eta binako berdinkekin aldagelaratu ondoren, balantzak oraindik orekako posizioan ziharduen, ez atzera eta ez aurrera.

Amaieran nagusitasunez

Bigarren erdian berriz, Javiren mutilen nagusitasuna erabatekoa bihurtu zen; kantxa gainean talde bakarra izan zelarik, Saldias eta Telleriak berehala apuritu zuten markagailua kanpotar-

rrek bandera zuria erakutsi zutelarik segidan. Erreaktziorako ahalmenik gabe eta atezain jokariaren taktikarekin ahaletzen inozoak egin ondoren Ekhi, Telleria, Ilunbe, Elola eta Saldiasek sinatutako sareratzeez 9-2kora arte mugitu zuten elektronikoa bukaerako santurtzitarren azken golaren aurretik.

Garaipen honekin tinko darrai taldeak bigarren postuan kokatu eta datorren astean Transportes Lakuntza Villabonako bizilagunaren aurka neurtuaz emango zaio amaiera lehen itzuliri.

Garaipena lortu ezker, bigarren bueltak emozioz beteriko partidak eskainiko dizkigu bere egutegian.

Larunbatean Tolosako Usabal kiroldagian Javi delegatua, Javi entrenatzailea, Endika, Barriola, Telleria, Joniko, Beloso, Saldias, Ilunbe, Ekhi, Elola, Gil eta Aratz izan ziren garaipen zabal honen errudunak.

Bigarren taldea

Filialari dagokionez, bigarren taldeak 11-4 galdu zuen eta Santxoren mutilek berriz 3-9 irabazi.



Arrospide eta Saralegiren arteko lehia, leaburuarra nagusi

Erredakzioa Aizkora

Binakako aizkolari txapelketaren baitan, Urrezko Mailan, proba erakargarria jokatu zen igandean Deban. Alde batetik, Olasagasti eta Saralegi aurkeztu ziren eta bestetik, Arrospide eta Murgertza II.a. Azken hauek izan ziren denborarik onena egin zutenak.

Eskualdeko bi aizkolari

Ruben Saralegi leitzarrak lan txukuna egin zuen. Amaieran, Olasagastirekin batera, 23:50eko denbora behar izan zuen lanak amaitzeko. Aurkarien artean, Anjel Arrospide aurkitzen zen. Leaburuarrak proba hauetara bikain moldatzen dela erakutsi zuen. Hauen denbora, 23:06koa izan zen.

Barriolak bakarrik lortu du garaipena maila nagusian

Tolosako Beotibar pilotalekuan binakako pilota txapelketako bi partida jokatu ziren ostiraletan

A. Imaz Pilota

Binakako txapelketaren jardunaldi berria jokatu da asteburuan. Lehen mailan eta bigarren mailan, eskualdeko pilotari ugari aritu dira lanean. Emaitzak, ohi bezala, kolore guztietakoak izan dira.

Tolosan jaialdia

Iragan ostiraletan hasi zen pilota festa eta lehen partidak Tolosan bertan izan genituen. Bigarren mailakoan Mikel Olaetxea lizartzarrik jokatu zuen. Gazteak, Al-bisuren osatu zuen bikotea eta partida ia guztian aurretik joan

ziren. Azkenean ordea, tanto bakarren faltan zeudela, Lemuno-Oteizak markagailua irauli eta garaipena eskuratu zuten.

Beotibarreko bigarren partidari, maila nagusikoan, Leitzan bizi den Asier Olaizolak jokatu zuen, Beloki lagun zuela. Bikote beteranoak amore eman behar izan zuen Berasaluze VIII.a eta Apraizen aurrean. Gazteak 22-15 nagusitu ziren.

Gainontzeko partidak

Ondorengo egunetan gainontzeko pilotarien txanda izan da. Abel Barriolak Xalarekin batera Donibane Lohitzunen jokatu zuen. Leitzarrak partida serioa jokatu zuen eta azkenean Gonzalez-Laskurain garaitzea lortu zuten urdinek, 22-18ko emaitzarekin.

Maila nagusiko hirugarren pilotariak, Oinatz Bengoetxeak, amore eman behar izan zuen Aimar Olaizola handiaren aurrean.



Mikel Olaetxea lizartzarrik garaipena eskuan eduki zuen, baina 21ean gelditu zen. ASIER IMAZ

Leitzarrak eta Patxi Ruizek 16 tanto egin zituzten.

Bigarren mailari dagokionez, Jon Jaunarenari berritxo ere gal-

tzea tokatu zitzaion. Larrinagarekin batera San gelditu zen gaztea. Olazabal izan zen garaipena lortu zuten gure pilotari bakarra. A-

soarrak Ladix Galartzarekin osatzen du bikotea eta 22-16ko emaitzaz gairitu zituzten Gorka eta Merino.

hitza

bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:

Arabako etorbidea 5 beheko 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31800 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____

• Lanbidea: _____

• Helbidea: _____

• P.K.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia:

• N.A.: _____

• Jaioteguna: _____

• Herria: _____

• Tel.: _____

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSAN HERRIA HEDABIDEAK S.L.-ren fitxa-tegi automatizatua batera pasatu direla, enpresa dituen eskaintzen berri emateko, zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, nahi izanez gero, idazu helbide honetara: TOLOSAN HERRIA HEDABIDEAK S.L.-Arabako etorbidea 5 beheko 20400 Tolosa - edo harpidetza@hitza.info



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoetardea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



EGUBERRIETAKO AZKEN HONDARRAK

Bukatu dira Eguberriak eta orain normaltasunera bueltatzeko garaia da. Etxeak apain-apain jartzeko ohitura dutenek ere guztia txukundu behar dute. Apaingarrien artean pinua izaten da urtero buruhauste gehien sortzen dituen, izan ere,

zer egin gero pinuarekin? Sasieta mankomunitateak urtero egiten du dei berezia hauek biltzeko eta egun jakin bat ematen du horretarako. Tolosan pasa den igandean pasa ziren, baina badirudi irudikoa ez zela enteratu. R.CALVO

Agurrak



Ioritz Agirretxe Arozena (Altsasu).
Hilaren 7an 9 urte. Aiton-amonen eta guztion partetik muxu handi bat.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

Zatoz HITZAko bulegora zure mahai egutegiaren bila!



Agenda

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** GKO galerian Artearen merkaturaren 22a arte.
- **Tolosa.** Tolosako Inauterien inguruko erakusketak inauguratu dute ostiral honetan, hilak 14. Martxoaren 12ra bitarte ikusi ahal izango da Aranburu jauregian. Erakusketak Tlsbat sailak antolatuta du herritarren artean bildutako irudi, iritzi eta bizipenekin.

DEIALDIK

- **Larraul.** Haurreskolan izena emateko epea zabalduko dute hilaren 17tik 28ra (biak barne). Matrikula orria haurreskolan bertan eskuratu daiteke.
- **Tolosa.** Hileroko odol ateratzea hilaren 17an 18:30ean.

MUSIKA

- **Tolosa.** Atila y los Unos talde tolosarraren kontzertua hilaren

- 14an 23:00etan Fronton kafe-tegian.
- **Tolosa.** Berri Txarrak taldearen emanaldia hilaren 14an Bonberenean 22:30ean. Sarrerak agortuta.
- **Tolosa.** Split 77 taldearen kontzertua hilaren 15ean 22:30ean Bonberenean.
- **Tolosa.** Band Sound System, EKD (Japonia) eta Dandy Dj Set (Japonia) hilaren 16ean Bonberenean 20:00etatik aurrera.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Tolosa & Co

Gure bezeroei eskerrak eman nahi dizkiegu Eguberriko opariak Tolosan erostegatik... eta orain beherapenetan itxaroten zaituztegu